



HEZKUNTZA, UNIBERSITATE ETA IKERKETA SAILA  
DPTO. DE EDUCACION, UNIVERSIDADES E INVESTIGACION

# EUSKARA PROBAK

## Irakurmena eta Idazmena

OHOko 8. mailarako (13-14 urte)

GIDA LIBURUA


811.361:37  
SIE  
eus







## GLOTODIDAKTIKA LANAK 37



Ale kopurua: 2.000

Lehenengo Argitaraldia: 1991ko abendua

© Euskal Herriko Autonomi Elkarteko Administrazioa  
Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia  
Wellington dukearen kalea, 2-01011 Gasteiz

Egileak: Josu Sierra eta Ibon Olaziregi

Azala: IRUDISEINU

Fotokonposaketa: Rali, S.A. - Particular de Costa 10, 12, 15 - 408010 Bilbao

Inprimatzailea: Itxaropena, S.A. - Araba kalea, 45 - 20800 Zarautz

ISBN: 84-457-0052-9

Legezko gordailua: SS 1232/91

# EUSKARA PROBAK

Irakurmena eta idazmena  
OHoko 8. mailarako (13-14 urte)

## GIDA LIBURUA



GASTEIZ, 1991

EUSKO JAURLARITZAREN ARGITALPEN ZERBITZU NAGUSIA





## AURKIBIDEA

TESTAREN DATU TEKNIKOAK .....	9
APLIKAZIO ARAUAK .....	11
ZUZENKETA ARAUAK .....	15
PUNTUAZIO ORRIA .....	19
ZUZENKETARAKO ADIBIDEAK.....	21



## TESTAREN DATU TEKNIKOAK

### Izena:

**Euskara probak.** Irakurmena eta Idazmena OHoko 8. mailarako (13-14 urte).

### Materiala:

- Gida liburua.
- Ikaslearen koadernotxoak.

### Jatorria:

Proba hauek Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak 1990ean egin-dako neurketa zabal baterako diseinatuta daude. Orain erabilera partikularragoa emateko argitaratzen badira ere, ez da ahantzi behar proben zenbait ezaugarri bere jatorrizko xedetik datozkiela.

### Lagina:

Proben aplikazio zabala 1990eko Maiatzean izan zen. Lagina proporzionala izan zen eta hiru aldagaien arabera estratifikatua: ikastetxe-mota edo sarea, irakasteredua eta udal-tamaina. Guztira Euskal Herriko Autonomi Elkarteko 79 ikasgela eta 2.318 ikasle. (1500 A ereduan, 268 Bn eta 550 Dn).

Proben aplikazioa berariaz prestaturiko inkestagileen bitartez egin zen Euskara Zerbitzua eta Ikuskaritzaren gidaritzapean. Tratamendu informatikoa Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkartearen (EJIE) bidez egin da.

### Aplikazioa:

Proba hauek taldeka aplikatzekoak dira. Pasaketa beraz oso denbora laburrean egin daiteke: hiru probak ordu betean erraz pasa daitezke.

### Prestatzaileak:

I. Olaziregi eta J. Sierra, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailekoak.

## Testen egokitasuna:

Gorago aipatu den bezala proba hauek aplikazio handi samar baterako sortu ziren: hiru irakastereduetan pasatu behar ziren. Komenta dezagun proba bakoitza.

**Irakurmena-1.** A eredurako pentsatua dago batipat. Testu erraza da eta galderak ere errazak dira. Fidagarritasuna Kuder-Richardsonen 2. formularen arabera kalkulatu dugu: A ereduan 0,69-koa da.

B ereduan eta batez ere Dn proba errazegia da, baina egokiak dira beste proben aurretik entrenamendu edo pizgarri gisara pasatzeko. B ereduan 0,66ko fidagarritasuna du eta Dn 0,60koa, baina batezbesteko puntuazioa altuegia da bi ereduetan.

**Irakurmena-2.** Proba hau B eta D erduei zuzendua dago. A-ko ikasleentzat zailegia da. B eredurako fidagarritasun indizea 0,67koa da eta D-rako 0,71koa.

**Idazmen** proba aski laburra eta sinplea da: hiru ereduetarako balio lezake. Zuzentzeko eskala kualitatibo bat dauka, bakarra hiru eredueta-rako. Kontuan hartu behar da, beraz, eredu bakoitzari eskala honen tarte desberdin bat egokituko zaiola.

Testaren baliotasuna ezagutzeko puntuazio orokor bat eraiki da hiru frogen artean eta ikasle bakoitzak OHOk 7. mailan izan zuen euskara notarekin korrelazionatu da. Korrelazio hori 0,35 izan da A eta B ereduetan, eta 0,22 A ereduan.

## Frogen deskribapena

**Irakurmena-1:** testu sinple bat irakurri ondoren aukera anitzeko 12 galdera erantzun behar dira testua kontsultatu gabe. Aukeratutako testua prentsatik hartua da eta zertxobait moldatu da A eredukoek ere ulertu ahal izan dezaten. Ikasleek orokorki testutik zer informazio jaso duten aztertu nahi da.

**Irakurmena-2:** testu bat irakurri eta horri buruzko aukera anitzeko 15 galderari erantzun behar zaio, horretarako testua kontsultatu daitekeelarik. Testua prentsatik hartua da eta informazio kantitate handi samarra darama. Ikaslearen ulermen orokorraz gain, testuan datu zehatzak aurkitzeko duen ahalmena aztertu nahi da.

**Idazmena:** gertaera berezi samar bat aurkezten duen irudia hartzen da oinarritzat. Gertaera horri buruz idatzi beharko du ikasleak era laburrean: zortzi lerro hain xuxen ere. Ikasleari idatziz zein hitzez adierazten zaio zer egin behar duen eta zein alor ebaluatuko zaizkion. Oso idazlan laburra izan arren, ekarpen hori nahikoa izan ohi da ikaslearen idazmen-maila aldeztetik aurrerako sailkapen batean kokatzeko.

## Puntuazioak

Proba bakoitzaren puntuazio zuzenez aparte puntuazio tipifikatuen taula bat eskaintzen da, ikasle bakoitzaren maila lagineko populazioarekin konparatu ahal izateko. (Ikus 19.orrialdea).

## APLIKAZIO ARAUAK

Ikasleen koadernotxoan datozen arauak irakurriko zaizkie, aldi berean ikasleek isilean irakurtzen dituzten bitartean. Edozein zalantza argitzen saiatu behar da froga egiten hasi baino lehen.

Lehenengo orriko datuak bete beharko dira hasiera-hasieratik.

### IRAKURMENA-1 (denbora: irakurtzeko 5', erantzuteko 6-7')

*5. orrialdean gaude. Goazen irakurtzera:*

*Oraintxe lurrikara bati buruzko testua irakurriko duzu. Irakur ezazu **arretaz bi edo hiru aldiz**. Horretarako minutu batzuk utziko ditut. Gero galdera batzuk erantzun beharko dituzu, baina testua berriro ikusi gabe. Testua ezin da kontsultatu.*

*Galdera bakoitzean **erantzun egokiena** aukeratu behar duzu eta borobil batez markatu. Hona horren adibide bat:*

*1.—Zer da San Francisco?*

- 1 Mendi handi bat.*
- 2 Ameriketako herri bat.*
- 3 Edari famatu bat.*
- 4 Liburu bat.*

*Erantzun zuzena 2.a da, ezta? Ba egiozue borobil bat biari! Ongi, galderarik badago? Orain minutu batzuk utziko dizkizuet testua irakurtzeko. Nik esan arte ez pasatu orririk. Orain joan 18. orrira... eta irakurri testu hori nik esan arte.*

*(Bost minutu pasatu direnean) Nahikoa da!... Orain joan 6. orrira eta hamabi galdera horiei erantzun. (6-7 minutu utzi erantzuteko).*

## OHARRA:

B eta D ereduetan oso bizkor egingo dute proba hau. Sei edo zazpi minutu pasatu baino lehen denek bukatu badute, amaitutzat emango da eta hurrengo probarekin jarrai daiteke.

A ereduak, aldiz, komenigarria izan daiteke oharrak gaztelaniaz egitea. Hona hemen gaztelaniazko bertsioa:

*Estamos en la página 5, en la parte de abajo. Vamos a leer:*

*A continuación vas a leer un texto que trata de un terremoto. Dispones de algunos minutos para leerlo **con atención dos o tres veces**. Después deberás responder a unas preguntas, pero sin mirar el texto. El texto no se puede volver a consultar.*

*En cada pregunta debes elegir **la respuesta más adecuada** y señalarla con un círculo, como en el ejemplo de arriba.*

1.—Zer da San Francisco?

- 1 Mendi handi bat.
- 2 Ameriketako herri bat.
- 3 Edari famatu bat.
- 4 Liburu bat.

*La respuesta correcta es la n.º 2, ¿no? Rodead el n.º 2 con un círculo. Bien, ¿hay alguna pregunta? Ahora os dejaré algunos minutos para leer el texto. No paséis la hoja hasta que yo os lo diga. Ahora id a la página 18... Podéis leer ese texto hasta que yo os avise.*

*(Bost minutu pasatu direnean) Ya es suficiente!... Ahora id a la página 6 y responded a esas doce preguntas (6-7 minutu utzi erantzuteko).*

## IRAKURMENA 2 (denbora: ± 17')

*Orain beste ariketa bat egingo dugu. 11. orrialdean gaude. Irakur dezagun:*

- Ondoko orrietan testu idatzi bat duzu. Testu hori urari buruzkoa da.
- Testua arretaz irakurri behar duzu eta gero hamabost galdera erantzun.
- Galderak erantzuteko testua nahi adinbat aldiz begira dezakezu.
- Galdera bakoitzean erantzun **egokiena** aukeratu behar duzu eta boro-bil batez markatu. Honela adibidez:

1.—Zer dira bainuetxeak?

- 1 Bi bainu dituzten etxebizitzak.
- 2 Bainuak hartzeko etxe berezi batzuk.
- 3 Haurrak bainatzeko leku batzuk.
- 4 Bainera itxura duten etxeak.

*Zein da erantzun zuzena? 2.a, ezta? Ba, egiozue borobila 2 zenbakiari.*

- Lehen-lehenik testua osorik irakur ezazu eta gero galderak erantzuten hasi.
- Galderarik badago? Pasa ezazue orria eta hasi!

*(Denek amaitzen dutenean edo 17 minutu pasatu direnean) Nahikoa da! Orain beste ariketa bat egingo dugu.*

## **IDAZMENA (denbora: ± 10)**

*Irakur dezagun 17. orrialdean:*

- 1. Begira iezaiozu alboko marrazkiari. Idatziz azaldu behar duzu marrazkiko gertaera.*
- 2. Gaia modu librean idatzi dezakezu; nahi duzun ikuspegitik.*
- 3. Zortzi lerro idatzi behar dira markatutako lekuaren barruan. Saia zaitez zortzi lerroak betetzen, ez gehiago eta ez gutxiago.*
- 4. Idazkeraz gainera, ortografia akatsak ere kontuan hartuko dira puntuaziorako.*

*Tira ba, lehendabizi pentsatu zer idatziko duzuen eta gero ongi idatzi. Amaitzen duzuenean koadernotxoan neri eman.*

(Hamar bat minutu utziko zaizkie. Lehenago amaitzen duenari galdera-orriak jasoko zaizkio).

### **Oharra:**

Proba hau A eredukoei pasatzen bazaie arauak gaztelaniaz eman ahal izango dira.

*Estamos en la página 17, en la parte de abajo. Vamos a leer:*

- 1. Observa el dibujo de la página de al lado. Debes expresar por escrito ese suceso.*
- 2. Puedes desarrollar el tema libremente, con el enfoque que desees.*
- 3. Debes escribir ocho líneas dentro de los límites marcados. Intenta rellenar las ocho líneas, ni más ni menos.*
- 4. Además de tu nivel de expresión escrita, se tendrán en cuenta las faltas de ortografía que cometas.*

*Antes de escribir pensad lo que vais a redactar. Cuando terminéis dadme el cuadernillo.*

(10 minutu utzi).





## ZUZENKETA ARAUAK

Irakurmena 1 eta Irakurmena 2 probak zuzentzeko asmatutako galderak kontatzea besterik ez dago. Horretarako zuzenketa-moldea (plantilia) erabil daiteke.

Zuzentzeko zailena Idazmen proba da. Zuzentzailearen lana ez da soilik pasiboa; nolabaiteko trebetasuna behar da proba hau zuzentzeko. Idazlana erizpide ahalik bateratuenekin zuzendu ahal izateko eskala kualitatibo bat erabili dugu. Eskala horretan idazmenaren zenbait alorri garrantzi berezia ematen zaio (1).

Halere, jarraian doan eskala hori ongi erabiltzeko beharrezkoa da lehen-lehenik bere nondik norakoa zertxobait azaltzea, eta gero, aplikaziorako balio dezaketen hainbat adibide ematea. Has gaitezen bada, zenbait oharrekin.

### Ohar nagusiak

1. Eskala honek idazmen-maila orokor bat neurtzen du. Ez da bereziki sartzan idazmenaren aspektu zehatzetan.
2. Eskala hau oso zabala da, euskara ia batere ez dakiten ikasleetatik euskara oso ongi dakitenetara iristen da, jatorrizko pasaketan mota guztietako ikasleak bait zeuden. Ikasgela jakin batean aplikatzerakoan, beraz, zehaztasun falta ere izan lezake. Nolanahi ere irakasleak aldeztatik jakin behar du eskalaren zati mugatu batean sailkatu beharko dituela bere ikasleak. Bestela esanda, irakasleari kategoria bat edo batzuk sobratu behar zaizkio taularen goiko edo beheko aldetik.

---

(1) Horrelako eskalak oso probetxugarriak izan daitezke eskolan, gauza desberdinak ebaluatzen: trebetasunak, jokabideak etab. Ez da oso zaila horrelako eskalak diseinatzea nahi diren aspektuak ebaluatzen, eta esperientziaren laguntzaz zehazten edo aldatzen joatea.

3. Orohar esan daiteke euskaraz eskolatua dagoen ikasle normal batek idazkera **arrunta** edo **ona** izango duela (40-50 puntu). Hizkuntza arloko ikasle onenek, idazkera **bikaina** izango dute segurki (60 puntu).
4. Idazkera **txarrak** edo hortik beherakoak (40 puntutik behera) idazmena ez dela menderatzen adierazten du. Maila txar hori izan daiteke ikaslea euskara ikasten ari delako, baina izan daiteke, baita ere, ikasleak hizkuntza edo idazmen mailako problemak izatea.
5. Idazlana behar bezala dagokion kategorian sailkatzeko gutxienez bi aldiz irakurtzea komeni da: behin idazmen-maila orokorra epaitzeko, eta berriz akats konkrituak aurkitu eta markatzeko.

## IDAZMEN MAILA

IZENA	PUNTUAK	DESKRIBAPENA
IDAZKERA BIKAINA	60	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Hizkuntza-akats larriak gabeko idazlana. Agian akats txikiren bat: ortografiakoa edo.</li> <li>• Hiztegi aberatsa erabiltzen du. Aditz eta esaldi dotoreak. Estilo polita.</li> <li>• Perpausak behar bezala banatuta, puntuazio ikurrak ongi erabiliz.</li> <li>• Gertaeraren azalpen zehatza eta borobildua.</li> </ul>
IDAZKERA ONA	50	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Idazkera ona, baina bereziki nabarmendu gabe. Agian akats larri samar bat izan lezake, baina posibleago da akats txikiren bat izatea: ortografiakoa edo.</li> <li>• Hiztegi normala erabiltzen du. Aditzak ongi daude eta joskera ona da.</li> <li>• Gertaera ongi azaltzen asmatu du.</li> </ul>
IDAZKERA ARRUNTA	40	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Hizkuntza-akats larriren bat edo beste. Seguraski akats txiki batzuk ere baditu: ortografiakoak etab.</li> <li>• Hiztegi arrunt samarra darabil. Aditzak eta joskera ere arruntak dira, aberastasunik gabekoak.</li> <li>• Gertaeraren azalpena bereziki ona izan gabe ere, ongi ulertzen da irakurtzerakoan.</li> </ul>
IDAZKERA TXARRA	30	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Hizkuntza-akats larriak ditu.</li> <li>• Erabiltzen duen hiztegia pobrea da. Aditzak eta egiturak oso arruntak dira eta batzuetan gaizki erabiliak.</li> <li>• Idazmena (eta agian hizkuntza ere) ez du ongi menderatzen.</li> <li>• Gertaeraren azalpenak hutsuneak ditu, ikasleak ez bait ditu behar adina hizkuntz baliabide.</li> </ul>
IDAZKERA OSO TXARRA	20	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Akats larri ugari ageri da.</li> <li>• Hiztegi urria dauka. Aditz errazenak (da, du, dio...) eta egitura sinpleenak bakarrik erabiltzen ditu.</li> <li>• Gertaeraren azalpena txarra da: adierazpen-hutsune handiak ditu. Agian ez du asmatzen gaia ongi zentratzen. Hala ere, esaldi gehienak sinpleak direnez, idazlana orohar ulertzen da.</li> </ul>
IDAZKERA EGITURATU GABEA	10	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Hizkuntza-akats ez josia edo egituratu gabea.</li> <li>• Zentzu handirik ez duten esaldiak agertzen dira.</li> <li>• Idazlanak ez du gertaera logiko eta oso bat adierazten.</li> <li>• Irakurlearentzat zaila da ikasleak idatzi nahi duena ongi ulertzen.</li> </ul>

OHARRA: Ezer idatzi ez duenari edo hitz solte batzuk besterik idatzi ez dituenari, esaldirik osatu gabe, ez dagokio batere punturik.

## **AZALPENAK:**

Goiago aipatu den bezala zaila izango da ikasgela berean kategoria guzti hauetako idazlanak aurkitzea. D ereduko ikasgeletan taularen goialdean ibiliko dira seguraski: 30-40 puntutik gora. B ereduetan batezbesteko maila D eredukoa baino apalagoa izango da gehienetan. Azkenik A ereduko ikasleak (etxetik euskaldun den ikasle bakarren bat salbu) maila bajuenetan ibiliko dira: 0-tik 40 punturako tarte horretan. Ebaluatzaile bakoitzak ikusi behar du, beraz bere ikasleen idazmen-maila eskalaren barruan non kokatzen den.

Bestalde, taulan aipatzen diren akatsak horrela definitu ditugu:

### **Hizkuntza-akats larriak:**

Gramatika edota hizkuntza-mailako huts handiak dira. Deklinabidekasu, aditz, joskera etabar **normalenak** gaizki erabiltzea esate baterako; edo euskaraz arruntak diren hitzak jakin ez eta gaztelaniaz ematea.

### **Bestelako akatsak (akats txikiak):**

Hizkuntza-mailan hain garrantzi handia ez duten hutsak dira, nahiz idatzizko hizkuntzaren barruan bere garrantzia izan. Txikiak dei ditzakegu larriekin kontrajartzeko. Ustegabeko hutsak izan daitezke; edota aditz, hitz edo joskera zailen bat gaizki erabiltzea; nork plurala (-ek) gaizki erabiltzea, etab...

*Ortografi akatsak:* Akats txikien barnean sartu ditugu. Hemen, esate baterako, sartzen dira h gaizki erabiltzea; s eta z edo *ts, tz, tx* nahastea; letrak jatea (*gehio, amakin...*); puntuazio-huts nabarmen-nabarmenak, esate baterako puntua falta izatea; letra larriak ez erabiltzea...

### **Zuzentzeko prozedura**

Idazlan jakin baten idazmen-maila erabaki baino lehen komeni da bertan agertzen diren hizkuntza eta ortografi akatsak aurkitu eta seinalatzea. Akats hauek zenbatu eta apuntatzeko koadrotxo batzuk ipini dira ikasleen koadernotxoan. Akats guztiak zenbatzen dira, nahiz errepikatuak izan.

Nolanahi ere idazmena ebaluatzerakoan eskala kualitatiboko *idazmen-maila* da tresnarik garrantzizkoena. Akats kopuruek balio lagungarria besterik ez dute. Gogora arazi behar da idazmen-mailak eta akats-kopuruak ez dutela beti erlazio zuzenik gordetzen: idazlan bat izan daiteke akats gutxikoa, baina, aldi berean, idazmen-maila bajukoa. Horrelako kasuak gerta daitezke esaterako, esaldi oso sinpleak baina ez egokiak erabiltzen direnean ("*katua polita da*", "*ama zutik dago*"...).

# PUNTUAZIO ORRIA

Ikasleen koadernotxoaren azken orrian puntuazioen tipifikazioa aurki daiteke. Sei mailatan banatu dira ikasleak beren puntuazioen arabera: *oso goikotik oso behekoa* bitartean. Taula honen bitartez ikasle jakin baten puntuazioak lagineko populazioarekin konpara daitezke. Irakasteredu desberdinek (A, B, D) aparteko zutabeak dituzte beren puntuazioak adierazteko, modu honetan ikaslea bere ereduko populazioarekin konparatu ahal izateko. Azpiproben puntuazioak marra batez lotu daitezke, horrela ikasle bakoitzarentzat puntuazioen perfil bat lortzen delarik.

PUNTUAZIO ORRIA											
		IR1			IR2			IDA			
TIP.	MAILA	A	B	D	B	D	A	B	D		
70	OSO GOIKOA				15		40				
		12			14		60				
60	GOIKOA	11			13				60		
		10			12	15	30				
50	ERDIKO GOIKOA	9	12		11	14		50			
		8	11		10	13	20				
40	ERDIKO BEHEKOA	7	10		9	12		40			
		6	9		8	11	10	30	40		
30	BEHEKOA	4	8		7	10					
		3	7		6	9	0	20	30		
20	OSO BEHEKOA	2	6		5	8					
		1	5	7	4	6		10	20		

D ereduko ikasle baten puntuazio orria.



## ZUZENKETARAKO ADIBIDEAK

Idazmena zuzentzeko eskalak idalan-mota desberdinak sailkatzeko balio du. Eskala hori erizpide bateratuak eta gutxienezko objetibotasun maila ezartzen saiatzen da. Hala ere, horrelako probetan beti dago zuzentzaileak eranstean duen subjektibotasun karga bat. Subjektibotasunaren eragin hori zertxobait gutxitzeko adibide batzuk ipini ditugu. Ikasleek egindako benetako idazlanak dira, zuzenduta ematen ditugunak. Idazlanak zuzendu behar dituenak adibide hauek sakon aztertu behar ditu, eta bertan erabiltzen diren erizpideak barneratzen saiatu (1).

### Teresa

*Bazihoan pareja bat orduantxe dendatik jasotako auto berrian. Etxerako bidean eguna mendian igarotzea bururatu zitzairen. Guztia oso ondo atera zitzairen. Lehendabizi entremes batzuk jan zituzten eta ondoren izugarrizko txuleta. Etxerantz zihoazela, atasko batek harrapatu zituen. Bi ordu luzez itxoin arren, hantxe jarraitzen zuten mugitu gabe. Azkenean senarra hainbeste haserretu zen autoa zerra batez erdibitu zuela, eta emaztea berarekin haserretu zen.*

IDAZMEN MAILA

6	0
---	---

AKATS LARRIAK

	0
--	---

BESTELAKO AKATSAK  
(ortografia etab.)

	0
--	---

(1) Akats larriei ⊗ ikurra ipini diegu, eta akats txikiak azpimarratu egin ditugu.

## IDAZMENA

1. Begira izeaiozu alboko marrazkiari. Idatziz azaldu behar duzu marrazkiko gertaera.
2. Gaia modu librean desarroila dezakezu; nahi duzun ikuspegitik.
3. Zortzi lerro idatzi behar dira markatutako lekuaren barruan. Saia zaitez zortzi lerroak betetzen, ez gehiago eta ez gutxiago.
4. Idazkeraz gainera, ortografia akatsak ere kontuan hartuko dira puntuaziorako.

Egun batean senar emazte bat<sup>o</sup> beraien auto berriari  
bidaia bat egitera joan zireu Portugalera. Oportom zudela  
senar emazte hau<sup>o</sup>, egurrezko gauzen museo batera  
joan ziren eta hau, Domostiako lagun batzuk aurkitu  
zizuten. Txikitandik ezagutzeu zireu eta batu marrodim  
bat zuten. Bi gizonek apustu bat egin zuten; ezetz besteak  
hau zegoen egurrezko auto bat zerraz moztu. Hala egin zuten  
Domostiarrak eta emaztea haseris eta beste denek iaeniturik bukitu zuten

### AIMATZEN DUZUNEAN, ORRI HAUEK IRAKASLEARI EMAN

IDAZMEN-MAILA

5 0

HIZKUNTZA-AKATS LARRIAK

2

BESTELAKO AKATSAK (Ortografia etab.)

3

Ikasle baten idazlana



## Garazi

Senar-emazte batzuk kotxean doaz. Beti bezala ez dira ados jartzen eta ez-tabaida bizia sortzen dute. Senarra sutan jartzen da bere emaztearen hitzekin eta azkenean, kotxetik irten, maletrotik zerra atera eta inguruko jendearen harridurarako kotxea bi zatitan ebakitzen hasten da. Emazteak, arrazoia daukalakoan, ez dio begiratu ere egiten senarra egiten ari denari.

IDAZMEN MAILA

6	0
---	---

AKATS LARRIAK

	0
--	---

BESTELAKO AKATSAK  
(ortografia etab.)

	0
--	---

## Maite

Marrazki honetan ikusi ahal izan dugunez, nahiko ero dagoen gizon bat bere kotxe deportiboa erditik ebakitzen ari da. Aldamenetik pasatzen den jendea zeharo harriturik begira geratzen da, zertan jarraituko duen interesaturik. Katu bat ere, naiz gizakia ez izan, hau ere harritua geratzen da gaintzekoak bezala.

IDAZMEN MAILA

5	0
---	---

AKATS LARRIAK

	0
--	---

BESTELAKO AKATSAK  
(ortografia etab.)

	2
--	---

## Miren Koro

Egun batean senar emazte bat <sup>⊗</sup>beraien auto berrian bidaia bat egitera joan ziren Portugalera. Oporton zeudela senar emazte hau <sup>⊗</sup>egurrezko gauzen museo batera joan ziren, eta han Donostiako lagun batzuk aurkitu zituzten. Txikitandik ezagutzen ziren eta katu marradun bat zuten. Bi gizonak apustu bat egin zuten; ezetz besteak han zegoen egurrezko auto bat zerraz moztu. Hala egin zuen Donostiarrak eta emaztea haserre eta beste denak harriturik bukatu zuten.

IDAZMEN MAILA

5	0
---	---

AKATS LARRIAK

	2
--	---

BESTELAKO AKATSAK  
(ortografia etab.)

	3
--	---

## Jon

Famili**u** bateko aita eta ama haserretu egin dira eta haserre daudenez aitak, zijoazen autoa zerra batekin erdibitu du bere andregaiare**n** hitzak ez entzuteagatik. Beraiei begira semeak daude eta oso harrituta**k** eta baita katu bat ere bera ere harriduraz beterik.

IDAZMEN MAILA

4	0
---	---

AKATS LARRIAK

	2
--	---

BESTELAKO AKATSAK  
(ortografia etab.)

	3
--	---

## Iñaki

Gurasoak, haserreturik daude eta dirudienez ez dute kotxe berdinean joan nahi eta aita**n** hori konpontzeko zerra batekin kotxea mozten du. Bere semeak eta besteak arriturik daude hau ikustean eta ez dakite zer pentsatu eta nola kotxea mozten duten ezin daitezke joan.

IDAZMEN MAILA

4	0
---	---

AKATS LARRIAK

	1
--	---

BESTELAKO AKATSAK  
(ortografia etab.)

	4
--	---

## Andoni

Gizonari giltzak ahaztu zaizkio berebil barruan, eta emakumea haserre dago berarekin. Umeak dena ikusten hari dira arrituta. Berebila bi zatitan hari da zatitzen. Katuak**n** ere arrituta dago haren konpondamenduetaz**n**, as-kenean gizona**n** zerrutzoa artu du eta kotzea bi zatitan banatzen du. Bat emakumerako**n** eta bestea gizonerako**n**.

IDAZMEN MAILA

3	0
---	---

AKATS LARRIAK

	5
--	---

BESTELAKO AKATSAK  
(ortografia etab.)

	9
--	---

## Nagore

Senar-emazte batek bere seme-alabarekin daude, eta katuarekin. Senar-emazteak diskutitu dute eta ama autoaren zati bat eskatu du berarentzako. Aita oso azerre, autoa erdibitzen hazi da, eta bitartean bere seme-alabak eta katu<sup>o</sup> arriduraz begiratzen diote aitari; nola zatitzen duen autoa. Bitartean ama bizkarra ematen dio senarrari.

IDAZMEN MAILA

3 0

AKATS LARRIAK

5

BESTELAKO AKATSAK  
(ortografia etab.)

6

## Olatz

Gizon bat, kotzen ganean dago. Zerra batekin zerratzen ari da, ere emakume bat dago ez zaiola inporta zer egiten duen kotzekin, baina gizona dirudenez gizona oso aserre dagoela. Bezte bi pertzona daude eta bere aurpegiak oso lirudatuak daude zeren ez dute ulertzen zergatik kotzea ipurtzen ari dutela. Katua ere oso lirudatua dago gizona egiten ari duelako.

IDAZMEN MAILA

2 0

AKATS LARRIAK

8

BESTELAKO AKATSAK  
(ortografia etab.)

1 0

## Yolanda

Baina, zer da hau? Familia hau haserre dago. Aita eta ama ez dute hitz egiten. Seme-alabak ez dakite zer gertatzen da. Zertarako aitak apurtu du kotxeak? Amak ez du nahi aitarekin joan kotxez eta ez du nahi haiekin hitz egin. Katua familia ero dagoen uste du. Nola ibilikotxeak apurtuta? Inor ez dakit baina hau fantasia da eta denak pasatu da. Kotxea berri da eta zer egiten ari dute? Denak eroak daude. Haserretu dira eta inor konponduko da familia hori.

IDAZMEN MAILA

2 0

AKATS LARRIAK

1 3

BESTELAKO AKATSAK  
(ortografia etab.)

2

### Arantxa

Kalean asko jende daude. Zer pasatzen? Gizon bat kotxe gainean dago. Bere emakumea aserretu dago. Kalean katu bat dago. Gizona kotxe apurtu du. Kotxea gelditu dago, kotxea ahundia da eta polita. Gendeak begira gizona, gizona ero dago.

IDAZMEN MAILA

1 0

AKATS LARRIAK

9

BESTELAKO AKATSAK  
(ortografia etab.)

4

### Luis Alberto

Aita eta amak aserretu dira eta aita kotzean gelditu da eta aita serruchorekin kotzean apurtu du, bi parteetan. Bideetan kotzea bi parte apurtu da eta aita kunetan joan da eta amak kotze batekin topatu da. Orain aita eta ama ospitalean daude. nire ama anka eta eskua apurtu da eta nire aita burua apurtu da eta nire aita burua apurtu da eta eskua ere bai.

IDAZMEN MAILA

1 0

AKATS LARRIAK

9

BESTELAKO AKATSAK  
(ortografia etab.)

8

Jakingarri gisara esan daiteke zein eredutan eskolaratuak dauden idazlan hauen egileak: Teresa, Garazi, Maite, Miren Koro, Jon eta Iñaki D ereduan; Andoni, Nagore eta Olatz B ereduan; Yolanda, Arantxa eta Luis Alberto A ereduan.

# EUSKARA ZERBITZUAREN ARGITALPENAK

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila

## GLOTODIDAKTIKA-LANAK

*Hizkuntzen irakaskuntzaren inguruko gaiak*

- HIZKUNTZEN IRAKASKUNTZA: TOPIKOAK ETA METODOLOGIAK. *N. Gardner* (1).
- HIZKUNTZEN IRAKASKUNTZA: GRAMATIKA ARIKETAK. *J.A. Mujika* (2).
- HIZKUNTZEN IRAKASKUNTZA: MAILAKETA GRAMATIKALA. *I. Olaziregi* (3).
- HIZKUNTZEN IRAKASKUNTZA: ZENBAIT ARTIKULU (5).
- HIZKUNTZ JOLASAK. *M. Sainz - I. Olaziregi* (15).
- BAKARKA 1. EUSKERA A DISTANCIA. *J.A. Letamendia* (18).
- BAKARKA 2. EUSKERA A DISTANCIA. *J.A. Letamendia* (22).
- BAKARKA 3. EUSKERA A DISTANCIA. *J.A. Letamendia* (29).
- TREBATZEN. OHO-ko GOIKO ZIKLORAKO HIZKUNTZ ARIKETAK. *M. Sainz* (23).
- EUSKALKIZ EUSKALKI. *R.M. Pagola* (19).
- EUSKARAREN OINARRIZKO HIZTEGIA. MAIZTASUN ETA PRESTASUN AZTERKETA. *J.M. Etxebarria. J.A. Mujika* (31).
- OINARRIZKO HITZAK. EUSKARAZKO HITZ ERABILGARRIENAK. *I. Olaziregi* (34).

*Bideo-gidoiak/Txotxongiloak/Musika*

- HAURRAK EUSKALDUNTZEN GIÑOLAREN BIDEZ I. *I.M. de Lezea-Kukubiltxo* (6).
- HAURRAK EUSKALDUNTZEN GIÑOLAREN BIDEZ II. *I.M. de Lezea* (9).
- ESKOLARAKO IPUINAK ETA ETA TXOTXONGILOAK. *I.M. de Lezea* (14).
- IPUIN ZAHAR ETA BERRIAK. *L. Iriondo* (10).
- KONTU KONTARI. *L. Iriondo* (20).
- AMONAREN IPUINAK. *E. Genua* (12).
- IPUIN GEHIAGO. *A. Lertxundi - J. Lucas - Keinu - Maskarada* (13).
- JOLASEAN. *I. Urbieta* (11).
- MUSIKA HEZKUNTZA ESKOLAURREAN. *I. Urbieta* (21).

*Euskararen Gaitasun Agiria (EGA)*

- EUSKALTZAINDIAK BATASUNERAKO ESKAINI DITUEN ERABAKIAK (8).
- EUSKARAREN GAITASUN AGIRIA. PROGRAMA (7).
- EGA. 1988-89ko AZTERKETAK (35).

*Hizkuntz testak eta ebaluazioak*

- EABHEM. EUSKARA-MAILA NEURTZEKO TESTA (D ereduko eskolaurrearako). *G. Ajuria - I. Ibarra - J. Sierra* (16).
- GALBAHE-E1 HIZKUNTZ TESTA (B eta D ereduetako OHOk 2. mailarako). *I. Olaziregi - J. Sierra* (26).
- GALBAHE-E2 HIZKUNTZ TESTA (B eta D ereduetako OHOk 5. mailarako). *I. Olaziregi - J. Sierra* (25).
- GALBAHE C1 Y C2. TESTS DE LENGUA (Gaztelaniazko testak OHOk 2. eta 5. mailarako). *J. Sierra - I. Olaziregi* (27).
- ZORTZI-A. HIZKUNTZ TESTA (A ereduko OHOk 8. mailarako). *I. Olaziregi - J. Sierra* (28).
- PIR-5 HIZKUNTZ TESTA (B eta D ereduetako eskolaurre-amaierarako). *I. Olaziregi - J. Sierra* (30).

*OHARRA: Liburuen eskuin aldeko zenbakitxoek argitalpen-sorta bakoitzeko korrelazio-zenbakiak dira.*

- EIFE 1. EUSKARAREN IRAKASKUNTZA: FAKTOREEN ERAGINA (euskaraz-gaztelaniaz-frantsesez-ingelese). *J. Gabiña - R. Gorostidi - R. Iruretagoiena - I. Olaziregi - J. Sierra* (H.U.I.S.-H.P.I.N.).
- EIFE 2. EUSKARAREN IRAKASKUNTZA: FAKTOREEN ERAGINA (euskaraz-gaztelaniaz-ingelese-frantsesez). *J. Sierra - I. Olaziregi* (33).
- EIFE 3. EUSKARAREN IRAKASKUNTZA: FAKTOREEN ERAGINA (euskaraz-gaztelaniaz-ingelese). *J. Sierra - I. Olaziregi* (36).
- EUSKARA PROBAK. Irakurmena eta idazmena OHoko 8. mailarako. *I. Olaziregi - J. Sierra* (37).

### **HIZKUNTZ PRESTAKUNTZA**

- BIZKAIERAREN IDAZTARAUAK. DEKLINABIDEA ETA ADITZA. *A. Arejita - J.M. Irazola - J. Uriarte* (1).
- EUSKAL ADITZA: BIZKAIERA ETA BATUA. *J.M. Irazola* (2).
- BIZKAIERAZKO JOSKERA. *A. Arejita - J.M. Etxebarria - J.M. Irazola - J. Uriarte* (4).
- HEZKUNTZ ADMINISTRAZIOKO BEHIN-BEHINEKO HIZTEGIA. *I. Artola - J.M. Berasategi - G. Nazabal - I. Olaziregi* (3).

### **ZABALKUNDE LANAK**

#### *Euskal Ikasmaterialgintza (EIMA programa)*

- IKASMATERIAL IDATZIEN BILDUMA 1990. *M.K. Kamino* (22).
- IKUS-ENTZUNEZKO IKASMATERIALEN BILDUMA 1990. *M. Usabiaga* (23).
- EIMA. EKINTZA PLANA. AZALPEN BATERABILDUA 1986 (14).
- EIMA. LAGUNTZA DEIALDIEN EMAITZAK 1980-85 (10).
- HEZKUNTZ SOFTWAREAREN BILDUMA 1990-91. *M. Usabiaga* (27).

#### *Irakaslegoaren Alfabetatze-Euskalduntzea (IRALE programa)*

- *IRALE. AURKEZPEN-TXOSTENA 1991-92* (26).

#### *Normalizazio Legearen Garapena (NOLEGA programa)*

- IKASTETXEEN BARNE-ERROTULAZIORAKO ESKULIBURUA. *I. Artola - J.M. Berasategi - I. Muruaga* (15).
- EUSKAL GIROTZE-EGONALDIETARAKO ESKULIBURUA. *R.M. Ardanza - I. Artola - J.M. Berasategi - L.M. Landaluze - A. Mujika - I. Muruaga* (16).
- ESKOLA-ANTZERKIA (18).
- URRUZUNO LITERATUR LEHIAKETA. LAN SARITUEN BILDUMA 1991.
- GOAZEN BARNETEGIRA (bideoa).
- EUSKAL GIROTZE BARNETEGIAK (bideoa).

#### *Beste txosten batzuk*

- *IRALE* (azalpen txostentxoak lau hizkuntzatan) (5).
- *EGA* (azalpen txostentxoak lau hizkuntzatan) (6).
- EUSKARA GAUR EGUNEKO HEZKUNTZA ARAUBIDEAN (euskaraz-gaztelaniaz) (20).
- EUSKAL IRAKASKUNTZA: 10 URTE (euskaraz-gaztelaniaz) (24).
- EUSKAL IRAKASKUNTZAREN GARAPEN-BIDEA (euskaraz-gaztelaniaz) (25).















*Euskara probak*

EK15030367



EUSKO JAURLARITZAREN ARGITALPEN-ZERBITZU NAGUSIA  
SERVICIO CENTRAL DE PUBLICACIONES DEL GOBIERNO VASCO

# ZUZENKETA - MOLDEA

IRAKURMENA 1 [REDACTED] *	IRAKURMENA 1 [REDACTED] ○	IRAKURMENA 2 [REDACTED] □	IRAKURMENA 2 [REDACTED] △
[REDACTED] 1	[REDACTED] 2	[REDACTED] 3	[REDACTED] 4
[REDACTED] 2	[REDACTED] 1	[REDACTED] 2	[REDACTED] 3
[REDACTED] 3	[REDACTED] 1	[REDACTED] 1	[REDACTED] 2
[REDACTED] 3	[REDACTED] 4	[REDACTED] 4	[REDACTED] 3
[REDACTED] 1	[REDACTED] 3	[REDACTED] 2	[REDACTED] 3
[REDACTED] 4	[REDACTED] 3	[REDACTED] 2	[REDACTED] 4
	[REDACTED] 4	[REDACTED] 2	[REDACTED] 1
		[REDACTED] 2	[REDACTED] 3

# EUSKARA PROBAK

Irakurmena eta Idazmena

IZENA: .....

GELA: .....

ADINA: .....

IRAKASTEREDUA: .....

AMA-HIZKUNTZA: .....

EGUNA: .....

Lehenengo Argitaraldia: 1991ko abendua

© Euskal Herriko Autonomi Elkarteko Administrazioa  
Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia  
Wellington dukearen kalea, 2-01011 Gasteiz

Egileak: Josu Sierra eta Ibon Olaziregi

Fotokonposaketa: Rali, S.A. - Particular de Costa 10, 12, 15 - 408010 Bilbao

Inprimatzailea: Itxaropena, S.A. - Araba kalea, 45 - 20800 Zarautz

ISBN: 84-457-0052-9

Legezko gordailua: SS 1233/91

## IRAKURMENA-1





## IRAKURMENA-1

Oraintxe lurrikara bati buruzko testua irakurriko duzu. Irakur ezazu **arretaz bi edo hiru aldiz**. Horretarako minutu batzuk utziko ditut. Gero galdera batzuk erantzun beharko dituzu, baina testua berriro ikusi gabe. Testua ezin da kontsultatu.

Galdera bakoitzean **erantzun egokiena** aukeratu behar duzu eta borobil batez markatu. Hona hemen adibide bat:

### 1.–Zer da San Francisco?

- 1 Mendi handi bat.
- 2 Ameriketako herri bat.
- 3 Edari famatu bat.
- 4 Liburu bat.

# GALDERAK

\*

## 1.—Ameriketan zenbat “Euskal Etxe” dago?

- 1 Asko.
- 2 Herri gutxitan.
- 3 Bi edo hiru.
- 4 Herri guztietan bat.

## 2.—Zertarako dira Euskal Etxeak?

- 1 Euskaldunak bizitzeko.
- 2 Euskaldunak elkartzeko.
- 3 Euskara ikasteko.
- 4 Pelotan jokatzeko.

## 3.—Zer dago Euskal Etxean?

- 1 Piszina haundi bat.
- 2 Zinea.
- 3 Jatetxea eta pilotalekua.
- 4 Dantzalekua.

## 4.—Nolakoa da San Franciscoko Euskal Etxea?

- 1 Txiki-txikia, baina polita.
- 2 Txarra.
- 3 Oso ona.
- 4 Oso berria.

## 5.—Nolako kalteak izan ziren San Franciscoko hegoaldean?

- 1 Txikiak.
- 2 Oso handiak.
- 3 Inportanteak.
- 4 Kalterik ez zen izan.

## 6.—Zer gertatu zen lurrikaran?

- 1 Jendeak surf egiten zuen.
- 2 Etxe guztiak apurtu ziren.
- 3 Jende guztia erori zen.
- 4 Dena mugitzen zen.



**7.–Non hil zen jende asko?**

- 1 Euskaldunen auzoan.
- 2 Autopistan.
- 3 Etxeetan.
- 4 Mexikanoen herrietan.

**8.–Zer gertatu zen autopistan?**

- 1 Erori egin zen.
- 2 Itxi egin zuten.
- 3 Txoke handi bat izan zen.
- 4 Ezer ez.

**9.–Euskaldunen etxeetan**

- 1 Ez zen ia ezer gertatu.
- 2 Ez zegoen inor.
- 3 Ez zuten ezer sentitu.
- 4 Ez da botilarik gelditu.

**10.–Zer gertatu zen Euskal Etxean?**

- 1 Horma guztiak apurtu ziren.
- 2 Botila guztiak mugitu ziren.
- 3 Jatetxe guztia jausi zen.
- 4 Botila guztiak apurtu ziren.

**11.–San Franciscon lurrikara berrien arriskurik badago?**

- 1 Ez, arriskurik ez dago.
- 2 Bai, baina arrisku txikia.
- 3 Bai, arriskua dago.
- 4 Ez, dena bukatu da.

**12.–Noiz izango da lurrikara bat?**

- 1 Laster.
- 2 Hil honetan.
- 3 Ez da inoiz izango.
- 4 Edozein egunetan.

**AMAITZEN DUZUNEAN, ITXARON ORRIRIK PASATU GABE.**

PUNTUAK

--	--



## IRAKURMENA-2



## IRAKURMENA-2

- Ondoko orrietan testu idatzi bat duzu. Testu hori urari buruzkoa da.
- Testua arretaz irakurri behar duzu eta gero hamabost galdera erantzun.
- Galderak erantzuteko testua nahi adinbat aldiz begira dezakezu.
- Galdera bakoitzean erantzun **egoki**ena aukeratu behar duzu eta borobil batez markatu. Honela adibidez:

### 1.–Zer dira bainuetxeak?

- 1 Bi bainu dituzten etxebizitzak.
  - 2 Bainuak hartzeko etxe berezi batzuk.
  - 3 Haurrak bainatzeko leku batzuk.
  - 4 Bainera itxura duten etxeak.
- Lehen-lehenik testua osorik irakur ezazu eta gero galderak erantzuten hasi.



# URARI KASU GUTXI

Historian zehar ur mota desberdinak aprobetxatu izan dira. Hain zuzen hiru ur mota aprobetxatzen ziren: gatz-urak, ur sulfuratua eta ur beroak. Bakoitzak bere erabilera zeukan, eta oraindik ere badauka. Gipuzkoako bi tokitan egiten zen gatz, ur gazia zegoe-lako. Ur sulfuratua, berriz, makina bat tokitan daude eta bainuetxe bat baino gehiago eraiki zen joan zen mendean paraje horietan. Ur beroa aprobetxatuz ere bi bainuetxe egin ziren: Zestoan eta Altzolan.

Hala ere bainuetxe izandako batzuk mahaiko ur fabrika bihurtu ziren gero: Lizartzako "Insalus" aurrena, eta Altzolako ura ondoren. "Belle Epoque"ko urte haietan urak medikuntza aldetik izan zuen garrantzia motelduz joan da harrezkero. Eraikuntzak erori edo bota egin dira, baina urak hortxe segitzen du, nahiz jende gehienak iturri edo putzuak non dauden ideiarik ere izan ez.

Medikuntzak aurrera egin ahala, bainuetxeak krisian sartu ziren. Errentagarritasuna galdu zuten, negozio-ustek usteldu. Ur sulfuratua zuten bainuetxeetara zihoazen azaleko gaixoek joateari utzi zioten, pomadak hasi bait ziren. Petxu edo gibeletik gaixo zeudenek Zestoara jotzen zuten asko, baina gaitz horientzako ere hasi ziren beste sendabide batzuk.

Ur sulfuratua zuten iturri asko itxi egin dira, ur horren usain txarragatik: arraultza ustelaren antzeko usaina, hain zuzen ere. Joan zen mendean bainuetxeak egin ziren Ormaiztegi, Gabiri, Ataun, Aretxabaleta eta Eskoriatzan, usain txarreko ur hori aprobetxatuz. Orain, berriz, apenas jenderik joaten den iturri horietara. Ur sulfuratuek sufrea eta materia organikoa daramate. Teoria desberdinak daude ur horien sorrerari buruz, baina zientzilarik gehienek diotenez, bakterio ustelak dauden tokietatik pasatzen delako hartzen du urak usain hori.

Aretxabaletan, konparazio baterako, bi bainuetxe izan ziren: "Bainu Zaharrak" eta "Bainu Berriak". Berriena aspaldi bota zen eta arrastorik batere ez da gelditu. Bestea ere aspalditxo itxi zuten, 1892an, baina eraikuntza hori egon da orain urte pare bat arte. Iturria orain ere han dago eta zenbait jende joaten da uretara. Ur sulfuratua da.

Santa Agedako zoroetxe zaharra ere bainuetxe izan zen aspaldi. Han ere ur sulfuratua zen. Garibai idazleak aipatu zituen hango iturri sulfurosoak XVI. mendean. Orain ere egon behar du zoroetxe barruan garai bateko iturri zaharretako bat.

XIX. mendean eta XX.eko aurreneko urteetan azal eta gibeletik gaitzak sendatzeko ur sulfuratua gomendatzen zituzten sendagileek. Hala ere, medikuntzak aurrera egin zuen eta ur sulfuratua gaindituta gelditu ziren.

Gatz-ura, berriz, lur gazietan ematen da, material gaziak diren tokietan. Ur horietatik gatz atera eta saldu egiten da. Euskal Herrian oraindik martxan dagoen lantegi bakarra Salinas de Añana, edo euskaraz Gesaltza, deitzen den herrikoa da, Araban. Gipuzkoan Gatzagakoa eta Zegamakoa zeuden, baina itxi egin zituzten. Gatzagan oraindik ere han dago errota, erabiltzen ez bada ere.

Gaur egun bainuetxe bakarra dago Gipuzkoan: Zestoakoa. Munduan martxan diren bainuetxe gehienak ur berokoak dira. Zestoako ura ere horrelakoxea da, eta orain dela gutxi berriro duten bainuetxe horretara joaten direnak haretxen bila hurbiltzen dira. Gaur egun bainuetarako balio izateaz gain, ur beroek beste erabilera bat ere izan dezakete: kalefaziotarako.

J. Lezeta-F. Ibargutxi

*El Diario Vasco. Zabalk. 1989-6-21 (moldatua)*

# GALDERAK



## 1.—Non eraikitzen ziren garai bateko bainuetxeak?

- 1 Ur gazia zegoen lekuetan.
- 2 Ur sulfuratua zegoen lekuetan.
- 3 Ur sulfuratua edo ur beroa zegoen lekuetan.
- 4 Ur beroa edo ur gazia zegoen lekuetan.

## 2.—Ze bainuetxe bihurtu ziren ur-fabrika?

- 1 "Insalus" eta "Belle Epoque".
- 2 Lizartzakoa eta Altzolakoa.
- 3 Lizartzakoa eta "Insalus".
- 4 Lizartza, Altzola eta "Insalus".

## 3.—Geroztik zergatik erori edo bota ziren eraikuntzak?

- 1 Medikuntzak urari ematen zion garrantzia gutxitu zelako.
- 2 Jendeak ur haiek non dauden ez dakielako.
- 3 Bainuetxe batzuk mahiko ur-fabrika bihurtu zirelako.
- 4 Ur horiek sendatzeko zuten ahalmena gutxituz joan zelako.

## 4.—Nora joaten ziren azalean gaixotasunen bat zutenak?

- 1 Ur desberdinak zituzten bainuetxeetara.
- 2 Gipuzkoan batez ere Zestoara.
- 3 Pomadak zituzten bainuetxeetara.
- 4 Ur sulfuratua zuten bainuetxeetara.

## 5.—Ur sulfuruak

- 1 Lehen baino gehiago aprobetxatzen dira.
- 2 Lehen gehiago aprobetxatzen ziren.
- 3 Bere usainarengatik aprobetxatzen dira.
- 4 Ahalik eta gehien aprobetxatzen dira.

## 6.—Zergatik du usain txarra ur sulfuruak?

- 1 Usteldu egiten delako.
- 2 Bakteria ustelen gainerik pasatzen delako, seguru asko.
- 3 Antza denez, bakteria ustelak hiltzen dituelako.
- 4 Materia organikoak sufrea daramalako.

## 7.—Aretxabaletan zein bainuetxe desagertu ziren lehenago?

- 1 "Bainu Zaharrak" "Berriak" baino lehenago.
- 2 "Bainu Berriak" "Zaharrak" baino lehenago.
- 3 Biak batera, baina iturria han dago.
- 4 "Bainu Berriak" bakarrik desagertu dira.



**8.–Zer egin zuten Santa Agedan?**

- 1 Zoroetxea itxi eta bainuetxea ireki zuten.
- 2 Zoroetxea bainuetxe bihurtu zuten.
- 3 Bainuetxea itxi zuten XVI. mendean.
- 4 Bainuetxea zoroetxe bihurtu zuten.

**9.–Zer egin zuen Garibaik?**

- 1 Santa Agedako iturriak aurkitu.
- 2 Zoroetxe barruan iturri bat eraiki.
- 3 Santa Agedan iturriak zirela idatzi.
- 4 XVI. mendeko idazleak aipatu.

**10.–Zenbat iraun zuen gutxi gorabehera ur sulfuratuen modak?**

- 1 Bi mende paseak.
- 2 Ehun urte inguru.
- 3 Hogeitabost urte inguru.
- 4 Betiko ohitura da.

**11.–Zein izan da sendagileen jarrera ur sulfuratuen aurrean?**

- 1 Beti ur sulfuratuen kontrakoak izan dira.
- 2 Erremedio onena dela esan dute beti.
- 3 Garai batean ontzat ematen zituzten.
- 4 Gomendagarriak direla uste dute.

**12.–Gaur egun Euskal Herriko zein lantegitan ateratzen da gatza?**

- 1 Gesaltzan eta Salinas de Añanan.
- 2 Gatzagan eta Zegaman.
- 3 Gesaltzan bakarrik.
- 4 Gatzaga kenduta, inon ez.

**13.–Zestoako bainuetxera doan jendea**

- 1 lasaitasun bila doa.
- 2 etxe baten bila hurbiltzen da.
- 3 elkarrengana hurbiltzen da.
- 4 ur beroaren bila doa.

**14.–Zertarako erabil daitezke gaur egun ur beroen iturriak?**

- 1 Bainuetarako ez ezik, berokuntzarako.
- 2 Kalefazorako eta kafea egiteko.
- 3 Berokuntzarako izan ezik, beste gauza askotarako.
- 4 Bainuetarako eta bainuen berokuntzarako.


**15.–Zertaz hitzegiten du testu honek?**

- 1 Euskal Herriko urari buruz.
- 2 Euskal Herriko bainuetxeei buruz.
- 3 Ur desberdinen erabilerari buruz.
- 4 Ur mota desberdin guztietaz.

PUNTUAK

--	--

# IDAZMENA





(In HABE, *Mintzamina lantzen*, Donostia 1986)

# IDAZMENA

1. Begira iezaiozu alboko marrazkiari. Idatziz azaldu behar duzu marrazkiko gertaera.
2. Gaia modu librean desarroila dezakezu; nahi duzun ikuspegitik.
3. Zortzi lerro idatzi behar dira markatutako lekuaren barruan. Saia zaitetz zortzi lerroak betetzen, ez gehiago eta ez gutxiago.
4. Idazkeraz gainera, ortografia akatsak ere kontuan hartuko dira puntuaziorako.


## AMAITZEN DUZUNEAN, ORRI HAUEK IRAKASLEARI EMAN

IDAZMEN-MAILA

--	--

HIZKUNTZA-AKATS LARRIAK

--	--

BESTELAKO AKATSAK (Ortografia etab.)

--	--

1. Observa el dibujo de la página de al lado. Debes expresar por escrito ese suceso.
2. Puedes desarrollar el tema libremente, con el enfoque que desees.
3. Debes escribir ocho líneas dentro de los límites marcados. Intenta rellenar las ocho líneas, ni más ni menos.
4. Además de tu nivel de expresión escrita, se tendrán en cuenta las faltas de ortografía que cometes.

## SAN FRANCISCOKO LURRIKARA

Ameriketako herri askotan badira "Euskal Etxeak". Bertan biltzen dira euskaldunak eta euskaldunen seme-alabak eta bilobak. San Franciscoko Euskal Etxea oso ona da, Estatu Batuetako (1) onenetakoa. Egunero dago zabalik. Jatetxe polita eta pilotaleku dotoreak ditu. San Franciscon lurrikara (2) haundi bat izan da orain dela gutxi, 1989an. Baina Euskal Etxea San Franciscoko hegoaldean (3) dago eta zona horrek ez zuen kalte (4) haundirik izan; kalte txikiak besterik ez.

"Ni lanean nengoen" esan digu Jean Fletcher euskal-amerikanoak. "Sentsazio ikaragarria izan zen, lurra eta etxeak mugitzen... Ezin da erraz esplikatu. Nolabait esateko, surfing egitea bezalakoa zen, ezin zara egon erori gabe eta ezin zutik jarri. Minutu erdiko lurrikara izan zen, baina ordu erdia balitz bezala sentitu nuen".

Jakina denez, lurrikara arratsaldeko bostetan hasi zen. Autopista erori egin zen eta pertsona asko hil ziren, baina kalte material handienak auzo pobreetan izan ziren, jende mexikanoa eta langileak bizi diren auzoetan (5).

"Euskal Etxean eta hemengo euskaldunen etxeetan ez da ia kalterik izan" esaten du Martin Minaberrik. Etxe batzutan hormaren bat bat mugitu da piska bat, baina besterik ez. "Euskal Etxean, adibidez, tabernako botila guztiak hautsi ziren eta hormak mugitu. Badakigu herri honetan arriskua badagoela" esan digu Minaberrik "eta, egunkariek esan dute, egun batean, lurrikara haundi bat helduko dela".

Joseba Etxarri

*Eguna*, 89-11-16 (moldataua)

## AMATZEN DUZUNEAN, ITXARON ORRIRIK PASATU GABE

- (1) Estatu Batuak = Estados Unidos
- (2) lurrikara = terremoto
- (3) hegoaldea = zona sur
- (4) kalte = daño
- (5) auzo = barrio

# PUNTUAZIO ORRIA

IZENA: .....

GELA: .....

ADINA: .....

IRAKASTEREDUA: .....

AMA-HIZKUNTZA: .....

EGUNA: .....

TIP.	MAILA	IR1			IR2			IDA		
		A	B	D	B	D	A	B	D	
70	OSO GOIKOA				15					
					14		40	60		
		12			13					
60	GOIKOA	11			12	15				60
		10			11	14	30	50		
		9	12		10	13				
50	ERDIKO GOIKOA	8	11		9	12				50
		7	10	11	8	11	20	40		
		6			7	10				
40	ERDIKO BEHEKOA	6	9	10	6	9				
		5	8		5	8	10	30	40	
		4		9	4	7				
30	BEHEKOA	3	7		3	6				
		2	6	8	2	5	0	20	30	
		1			1	4				
20	OSO BEHEKOA		5	7		3				
			4			2		10		
				6		1				20



